



JENDAURREKO KONTSULTAREN TRAMITEA

Apirilaren 17ko 25/2013 Foru Dekretua aldatzen duen foru dekreturako proiektua.

Foru dekretu horren bidez Nafarroako Foruzaingoko kideek zerbitzuaren arrazoiak direla-eta arropa erabili eta erosteagatik kalte-ordaina jasotzeko baldintzak, eta beste neurri batzuk, arautu ziren.

8/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 23koa, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak emana, apirilaren 17ko 25/2013 Foru Dekretua aldatzeko prozedurari hasiera ematen diona. Foru Dekretu horren bidez arautu ziren Nafarroako Foruzaingoko kideek zerbitzuaren arrazoiak direla-eta arropa erabili eta erosteagatik kalte-ordaina jasotzeko baldintzak, eta beste neurri batzuk.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak prestatzeko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko, erregelamendu proiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratu da Nafarroako Gobernuaren Atarian argitaratuz. Iritziak eta ekarpenak aurkezteko epe bat ireki da 2019ko urtarrilaren 28tik otsailaren 19ra bitartean jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariarik handiena duten erakundeek.

Jendaurreko aldi hori amaituta, ez da inolako iradokizunik eta/edo ekarpenik aurkeztu argitalpenean jarritako helbide elektronikoan, eta beraz, tramitea burututzat jo behar da.

BARNEKO ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZERBITZUKO ZUZENDARIA